

Félix Tena o jostailu atseginen arrakasta



Felix Tena, **IMAGINARIUM**-en fundatzailea eta zuzendari nagusia

1 992. urtean sortuta, Imaginarium, gaur egun munduan dagoen jostailu-denda espezializatuena da. 329 saltoki ditu 25 herrialdetan sakabanatuak. 1992. urtean Félix Tena Comadrán-ek eratutako enpresa hau, oso urte gutxitan, haurrentzako jolaserako produktuen esparruan erreferentzia bihurtu da, baina batez ere, negozio-eredu imita ezina. Hasieratik, etengabeko berrikuntza eta bezeroarekiko arreta, konpainiaren ardatz egin ditu. Bere sustatzaileak azaltzen duen bezala, Imaginarium sortzeko erabilitako filosofiak hasieratik apurtzen zituen sektoreak ordura arte erabilitako oinarriak: *"Jostailua, haur baten adimen-garapenaren protagonista nagusietako bat bada, jostailuaren benetako jatorri ludiko eta xaloa berreskuratu beharko litzateke, eta bere oinarrian egon beharko luketen eta, antza denez, ahaztuta genituen heziketarako balio garbiak berriz eskuratu beharko genituzke"*.

Gaur egun Europako enpresaburu ekintzaile nagusi eta dinamikoen artean dagoen Félix Tenak Step Two, S. A. -Imaginariumen sozietate sustatzailea- abian jartzeko erabaki zuen unera arte, gizon honen ibilbidea jostailuaren eta negozioen munduekin lotua zegoen. Zaragozan jaio zen 1960. urtean, eta ESADEn eta Columbus University (Ohio - Ameriketako Estatu Batuak) unibertsitatean Ekonomia eta Enpresen Administrazioa ikasi ondoren, iragan mendeko laurogeiko hamarkadaren amaierarako ondo ezagutzen zituen



enpresako produktu bezala jostailuak zein ezaugarri zituen, garai hartarako arrakasta handia izan zuten hainbat mahai-joko sortu eta fabrikatu baitzitu.

Heziketa-jostailuen fabrikazioan oinarrituta, bere lehen konpainia zabaldu ondoren, Tenak, haurrentzako jolasen inguruko negozioaren ezaugarriak eta berezitasunak zuzenean aztertu ahal izan zituen. Bertan ikusi zuen, merkatuaren exigentziek bultzatuta, fabrikatzaile askok, euren sormenen benetako zentzua eta helburu nagusia galdu zituztela, hots, haurren nahiak betetzea eta gurasoei lasaitasuna transmititzea.

Hori egiaztatuta, ekintzaile gazte honek, jostailuaren eta banaketaren munduetan esperientzia zabala zuen profesional-talde batekin batera, Zaragozan lehen Imaginarium denda zabaldu zuen. Dendak, hasieratik, bi helburu nagusi zituen: euren jostailuak egin eta salduta, haurrak gehiago eta hobeto dibertitzea, eta haurrek heziketa osoagoa izan dezaten sustatzea. Ahalegin honetan arrakasta lortzeko, enpresatik bertatik honako hau azaltzen dute: *"gure enpresa-estrategia beti hainbat baloretan oinarritu da. Balore hauek, lehiakideekiko bereizten gaituzte eta gure bezeroei edo "gonbidatuei" -hala deitzea gustatzen zaigu- balore handiagoa ematen diete. Baloreak, honako hauek dira: kalitatea, segurtasuna, hezkuntza-balorea, jolas-balorea, sexismorik ez eta eduki belikorik ez".* Funtsean Imaginariumi, azken hamarkadan zehar urtero %40-50eko erritmoan hazten ahalbidetu dioten printzipio horiek, erakundeak duen ideia nagusi batekin osatzen da, hots, enpresaren balio nagusia, bertan lan egiten duen jendea dela. Konpainiarekin lanean ibilitako pertsona batek dioen bezala, Imaginariumen *"pertsona bakoitza, enpresa-arlora mugatzen ez den proiektu baten zati dela jabetzen da eta, horri esker, bere lanean, normala baino gogo handiagoa jartzen du".*





Bere enpresa-proiektuaren bitartez, Félix Tenak transmititu nahi zuen jostailuak diseinatu eta saltzeko izpiritu berri hau argi ikusten da Imaginariumekeo dendetan bertan. Hau da konpainia hau besteetatik diferente egiten duen elementuetako bat. Erosleak etengabe eroso sendi daitezzen pentsatuta, Imaginarium dendak berak jostailu bat dira. Bertan hurrek objektu guztiak proba ditzakete, guztiak euren eskura daudelako. Kasu askotan enpresaren ikur bihurtu den beste elementu bereizgarria, denda guztietan dagoen sarrera bikoitza da: bata, gurasoentzako eta, bestea, aurrekoaren ondoan eta txikiagoa, haurrentzako. *"Pentsatu genuen dendak, sentsazioen eta esperientzien benetako katalizatzailea izan behar zuela, eta bezeroekin konektatu behar zuela. Horregatik, gure bezeroak 'gonbidatuak' deitzen ditugu. Hau da, gure etxean hartu behar ditugu, ondo tratatu behar ditugu, eta gure baloreak jakinarazi eta transmititu behar dizkiegu".*

"Gonbidatuek" berehala sendotu zuten Imaginariumen hasierako arrakasta, eta Zaragozan lehen denda zabaldu ondoren, konpainiak azkar ireki zituen gehiago Madrilen eta Bartzelonan. "Lehen urteetan erotu egin ginela pentsatu zuen jendeak. Ezin zuten ulertu, telebistan produkturik iragarri gabe eta fabrikatzaile handien produktu arrakastatsurik izan gabe nola saldu genezakeen. Eta, hain zuzen ere, lehiakideek nola erreakzionatu ez jakin izana oso baliagarria izan zen guretzat."

Bi urte beranduago, 1994an, eta bederatzi denda zabalik zituela, Imaginarium, negozioaren frankizia hainbat tokitan jartzeko eskaerak jasotzen hasi zen. *"Guk frankiziak jarri genituen, horrelako eskaerak jaso genituelako; hori gauza gehiago egiteko masa kritikoa azkarrago lortzen lagunduko zigula pentsatu genuen. Gure baliabideen bitartez hamar denda baditugu, eta gure eta besteen baliabideekin hogeitun izan badituzakegu, beharbada hamar denda horiei esker, artikuluren bat diseina dezakegu edo diseinatzailearen bati eska diezaiokegu".*

Modu horretan, eta etengabe berritzeko asmoarekin, Imaginarium dendek, urtean, bi produktu bilduma eskaintzen dituzte; guztira, 1.500 artikulua dira, eta denboraldi bakoitzean, batez beste, 400 berrikuntza aurkezten dituzte. Félix Tena asko pozten du, dendetan hurrek jostailuekin gozaten ikustea. Hori da, beharbada, Imaginarium proiektuari zentzua ematen dioten plazer nagusienetako bat. *"Haurrak begiratzen ditudanean oso pozik jartzen naiz, askotan gertatuko zela uste zenuena gertatzen ari dela konturatzeko zarelako eta, beste hainbatetan, produktu batekin, zuk pentsa ezin zenituen gauzak gertatzen direlako. Jostailua nola hartzen duten, nola begiratzen duten edo jostailu horrekin zer egiten duten... Uste dut guztiak emozionatu egiten garela haur bat gauza jakin batekin liluratua dagoela ikusten dugunean. Aurpegi berezia jartzen du, galderarena, erabat kontzentratua. Benetan zoragarria da".*



Gaur egun, Imaginarium zabaltzeko planen artean, Turkia, Grezia edo Irlanda bezalako herrialdetan dendak ireki nahi dituzte. Halaber, Erresuma Batuan 50 denda zabaltzea aurreikusi dute, horietatik bost jada prest daude inauguratzeko Londresen. Edonola ere, konpainiak, 2006. urterako 92 milioi euroko fakturazioa, eta Hong-Kongen (Txina) eta zehaztu gabe dagoen Hegoamerikatako herrialde batean bi zentro logistiko berri zabaltzea aurreikusi badu ere, Félix Tenak bere burua ekintzaile bezala ikusten jarraitzen du; eta ekintzaile bezala lor daitezkeen sari guztiak eskuratu ondoren, oraindik gogoratzen du bere ustez zein diren enpresa bat abian jarri nahi duen edonork izan behar dituen ezaugarri nagusiak: *"pertsonek baikorra eta saiatua izan behar du, bai eta, borondate irmokoa ere; baina, batez ere, arazoak txikitzen eta abantailak handitzen dakien pertsona izan behar du, eta espezialitatea eta orokortasuna uztartzen jakin behar du".*